

**Txostena**

**Informe**

**EAEko Udal Entitateen Kontuak**

**Cuentas de las Entidades Locales de la CAPV**

**2018**





Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## AURKIBIDEA / ÍNDICE

LABURTZAPENAK ETA DEFINIZIOAK .....	5
AZTERTUTAKO RATIOAK.....	7
I. SARRERA.....	9
II. ONDORIOAK.....	12
II.1 UDALEN KONTUAK .....	12
II.2 UDALAZ GAINDIKO KONTUAK .....	15
III. RATIOAK ETA ADIERAZLEAK 2018/12/31N.....	18
III.1 UDAL ADIERAZLEAK .....	18
III.1.1 Finantza adierazleak .....	19
III.1.2 Aurrekontuaren adierazleak.....	27
III.2 UDALAZ GAINDIKO ENTITATEEN ADIERAZLEAK .....	37
III.2.1 Finantza adierazleak .....	37
III.2.2 Aurrekontuaren adierazleak.....	40

## ERANTSITAKO LIKIDAZIOAK

<http://www.tvcp.eu/informes.asp>

ERANSKINAK .....	45
A.1 KONTUAK AUDITATUAK DITUZTEN ERAKUNDEAK.....	45
A.2 LANGILERIA-GASTUAK .....	46
A.2.1 Udalak .....	46
A.2.2 Udalaz gaindiko entitateak .....	47
A.3 KONTU OROKORREN AZTERKETAN HUTSAK .....	48
A.3.1 Udalak .....	48
A.3.2 Udalaz gaindiko entitateak .....	56
ALEGAZIOAK .....	59

## EKONOMIA-FINANTZAREN INFORMAZIOA

<http://www.tvcp.eu/informes.asp>

1. ERAKUNDE AUTONOMOAK, ERAKUNDE PUBLIKOAK, SOZIJETATE PUBLIKOAK  
ETA FUNDAZIOAK
2. AURREKONTU-LIKIDAZIOEN ETA PLANTILLAREN LABURPENA
3. FINANTZA RATIOAK
4. MAGNITUDE NAGUSIEN BILAKAERA



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

<b>ABREVIATURAS Y DEFINICIONES .....</b>	<b>63</b>
<b>RATIOS ANALIZADOS.....</b>	<b>65</b>
<b>I. INTRODUCCIÓN.....</b>	<b>67</b>
<b>II. CONCLUSIONES .....</b>	<b>70</b>
II.1 CUENTAS MUNICIPALES .....	70
II.2 CUENTAS SUPRAMUNICIPALES .....	73
<b>III. RATIOS E INDICADORES A 31/12/2018 .....</b>	<b>76</b>
III.1 INDICADORES MUNICIPALES .....	76
III.1.1 Indicadores Financieros.....	77
III.1.2 Indicadores Presupuestarios.....	85
III.2 INDICADORES DE LAS ENTIDADES SUPRAMUNICIPALES.....	95
III.2.1 Indicadores Financieros.....	95
III.2.2 Indicadores Presupuestarios.....	98

## LIQUIDACIONES AGREGADAS

<http://www.tvcp.eu/informes.asp>

<b>ANEXOS .....</b>	<b>103</b>
A.1 ENTIDADES CON CUENTAS AUDITADAS .....	103
A.2 GASTOS DE PERSONAL.....	104
A.2.1 Ayuntamientos.....	104
A.2.2 Entidades Supramunicipales .....	105
A.3 DEFICIENCIAS DEL ANÁLISIS DE LAS CUENTAS GENERALES.....	106
A.3.1 Ayuntamientos.....	106
A.3.2 Entidades Supramunicipales .....	114

<b>ALEGACIONES .....</b>	<b>117</b>
--------------------------	------------

## INFORMACIÓN ECONÓMICO FINANCIERA

<http://www.tvcp.eu/informes.asp>

1. ORGANISMOS AUTÓNOMOS, ENTIDADES PÚBLICAS, SOCIEDADES PÚBLICAS Y FUNDACIONES
2. RESUMEN DE LAS LIQUIDACIONES PRESUPUESTARIAS Y PLANTILLA
3. RATIOS FINANCIEROS
4. EVOLUCIÓN PRINCIPALES MAGNITUDES

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urriaren 29a  
Vitoria-Gasteiz, 29 de octubre de 2020



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## LABURTZAPENAK ETA DEFINIZIOAK

10/2003 FA	21/2003 Foru Araua, abenduaren 2koa, Bizkaiko Lurralde Historikoaren Toki Entitateen aurrekontuei buruzkoa.
21/2003 FA	21/2003 Foru Araua, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Toki Entitateen aurrekontuei buruzkoa.
3/2004 FA	3/2004 Foru Araua, otsailaren 9koa, Arabako Lurralde Historikoaren Toki Entitateen aurrekontuei buruzkoa.
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia.
LH/LLHH	Lurralde Historikoa / Lurralde historikoak.





Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## AZTERTUTAKO RATIOAK

Berehalako likidezia	Funts likidoak / Pasibo arrunta.
Likidezia epe laburrera	(Funts likidoak + Kobratzeko eskubideak) / Pasibo arrunta.
Likidezia orokorra	Aktibo arrunta / Pasibo arrunta.
Zorpetzea biztanleko	(Pasibo arrunta + Pasibo ez arrunta) / Biztanle kopurua.
Zorpetzea	(Pasibo arrunta + Pasibo ez arrunta) / (Pasibo arrunta + Pasibo ez arrunta + Ondare garbia).
Zorpetze maila	Pasibo arrunta / Pasibo ez arrunta.
Cash-Flow	(Pasibo ez arrunta + Pasibo arrunta) / Eskudiruzko fluxu garbiak, eskudiruzko fluxuen egoera kudeatzeko jarduerengatik.
Ondare eta ekonomia-emaizaren kontuaren ratioak	Sarrerren egitura: Zerga eta hirigintzako diru-sarrerak / Kudeaketa arrunteko sarrerak. Jasotako dirulaguntza eta transferentziak / Kudeaketa arrunteko sarrerak. Salmentak eta zerbitzu-ematea / Kudeaketa arrunteko sarrerak. Kudeaketa arrunteko gainerako sarrerak / Kudeaketa arrunteko sarrerak. Gastuen egitura. Langileria-gastuak / Kudeaketa arrunteko gastuak. Emandako dirulaguntza eta transferentziak / Kudeaketa arrunteko gastuak. Hornidurak / Kudeaketa arrunteko gastuak. Kudeaketa arrunteko gainerako gastuak / Kudeaketa arrunteko gastuak. Gastu arrunten estaldura: Kudeaketa arrunteko gastuak / Kudeaketa arrunteko sarrerak.
Zorpetze finantzarioa sarrera arrunten gainean	[Pasibo arrunta (finantzarioa) + Pasibo ez arrunta (finantzarioa)] / Eskubide aitortu garbiak (1etik 5erako kap.).
Finantza-zorra amortizaziorako balioetsitako epea	[Pasibo arrunta (finantzarioa) + Pasibo ez arrunta (finantzarioa)] / Eskubide aitortu garbiak (1etik 5erako kap.) – Obligazio aitortu garbiak (1etik 4rako kap.).
Sarrerren aurrekontuaren egikaritza	Eskubide aitortu garbiak / Sarrerren behin betiko aurreikuspenak.
Autonomia	Aitortutako eskubide garbiak (1etik 3ra, 5, 6 eta 8 kap. + transferentziak) / Eskubide aitortu garbiak.
Autonomia fiskala	Eskubide aitortu garbiak (zerga izaerako sarrerena) / Eskubide aitortu garbiak.
Jasotako dirulaguntzekiko mendekotasun indizea	Eskubide aitortu garbiak (4 eta 7 kap.) / Eskubide aitortu garbiak.
Kobrantsak gauzatzea	Diru-bilketa garbia / Eskubide aitortu garbiak.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Kobrantza osorako batez besteko aldia 1etik 3rako kap.	[Kobratzeko dauden eskubideak (1etik 3rako kap.) / Eskubide aitortu garbiak (1etik 3rako kap.)] *365.
Gastuen aurrekontuaren egikaritza	Obligazio aitortu garbiak / Gastuen kreditu behin betikoak.
Langileria-gastuen indizea	Langileria-gastuak / Eskubide aitortu garbiak (1etik 5erako kap.).
Inbertsio-ahalegina	Obligazio aitortu garbiak (6 eta 7 kap.) / Obligazio aitortu garbiak.
Ekitaldiko finantza zama	Obligazio aitortu garbiak (3 eta 9 kap.) / Eskubide aitortu garbiak (1etik 5erako kap.).
Gastua biztanleko	Obligazio aitortu garbiak / Biztanle kopurua.
Biztanleko inbertsioa	Obligazio aitortu garbiak (6 eta 7 kap.) / Biztanle kopurua.
Ordainketak gauzatzea	Gauzatutako ordainketak / Obligazio aitortu garbiak.
2. eta 6. kap. ordaink. batez best. epe globala	[Ordaintzeko dauden obligazioak (2. eta 6. kap.) / Obligazio aitortu garbiak (2. eta 6. kap.)] * 365.
Aurrezki gordin ez finantzarioa biztanleko	[Eskubide aitortu garbiak (1etik 5erako kap.) / Obligazio aitortu garbiak (1, 2 eta 4 kap.)] / Biztanle kopurua.
Aurrezki garbia biztanleko	[Aurrezki gordin ez finantzarioa – Finantza zama (gastuen 3 eta 9 kap.)] / Biztanle kopurua.
Aurrezki gordinaren indizea	[Eskubide aitortu garbiak (1etik 5erako kap.) – Obligazio aitortu garbiak (1etik 4rako kap.)] / Eskubide aitortu garbiak (1etik 5erako kap.).
Aurrezki gordinaren indize ez finantzarioa	[Eskubide aitortu garbiak (1etik 5erako kap.) – Obligazio aitortu garbiak (1, 2 eta 4 kap.)] / Eskubide aitortu garbiak (1etik 5erako kap.).
Biztanleko superabita edo defizita	Doitutako aurrekontu emaitza / biztanle kopurua.
Zalantzazko kobragarritasuna duten zordunen indizea	Zalantzazko kobragarritasuneko saldoak / kobratzeko dauden zordunak.
Ekitaldi itxietako kobrantzak gauzatzea	Kobrantzak / Eskubideen hasierako saldoa (+ - aldaketak eta baliogabetzeak).
Ekitaldi itxietako ordainketak gauzatzea	Ordainketak / Obligazioen hasierako saldoa (+ - aldaketak eta baliogabetzeak).





## I. SARRERA

HKEE honek hezurmamitu duen Lanerako Programa betez, EAEko udalen eta udalaz gaindiko entitateen 2018ko kontu orokorrak aztertu dira, ikuspegi formala eta kualitatiboa oinarri hartuta.

Toki Entitateentzat aurrekontu gaietan erregulazio orokor oinarrizkoa osatzen dute Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak.

EAEren esparruan Lurralde Historiko bakoitzaren Batzar Nagusiek onartutako indarreko arautegia 3/2004 FA, 10/2003 FA eta 21/2003 FA da. Foru Dekretuen bidez garatu dira aurrekontuei buruzko foru arau hauek lurralde historiko bakoitzean eta horietan toki entitateen aurrekontuaren egitura eta kontabilitate publikoaren plan orokorra jaso dira. Hiru lurralde historikoetako toki entitateen aurrekontu likidazioari eta Kontu Orokorrari dagokion dokumentazioa, Aurrekontuko Foru Arau bakoitzaren 47 eta 62 artikuluek arautzen dute.

Aurreko urteetan egin dugun legez, txosten-diagnostiko hau EAEn 2018ko ekitaldian dauden 252 udal administrazioei eta udalaz gaindiko 63 entitateei soil-soilik dagokie (ez ditu besarkatzen mendeko erakunde autonomoak, sozietate publikoak, entitate publikoak eta fundazioak) . Hona hemen horien xehakapena:

- 18 partzuergo
- 34 mankomunitate
- 6 kuadrilla
- 5 partzoneria

EAEren udal multzoaren kontu orokorrak eta lurralde historikoen arabera banaketa, eta udalaz gaindiko entitate multzoaren kontuak eta emandako zerbitzu motaren arabera banaketa likidazioak txertatzen eskuratu dira, ia gehienak fiskalizatu gabeak, 238 udalek (% 94,44) eta udalaz gaindiko 57 entitatek iritsarazi dizkigutenak (% 90,48).

25 udalek eta udalaz gaindiko 12 erakundek aurkeztu dituzte kontu auditatuak eta HKEEk, gainera, 7 udal eta udalaz gaindiko 3 entitate fiskalizatu ditu (ikus A.1).

Aztertutako udal eta udalaz gaindiko entitateek antolamenduan 78 erakunde autonomo, 103 udal sozietate publiko eta 4 enpresa-entitate publiko besarkatzen dituzte, ondotik erakutsiko dugun laburpenaren arabera. Xehakapena honako lotunean dago jasoa:

- <http://www.tvcp.eu/informes.asp>



Herri - Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

	ERAKUNDE KOPURUA		
	ERAKUNDE AUTONOMOAK	SOZIJATE PUBLIKOAK	ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAK
<b>Udaletakoak:</b>			
Araba.....	6	11	-
Bizkaia.....	38	34	2
Gipuzkoa.....	32	47	2
<b>Udalaz gairdikoak:</b>			
Partzuergoak.....	-	4	-
Mankomunitateak.....	2	7	-
Kuadrillak.....	-	-	-
Partzoneriak.....	-	-	-
<b>EAE GUZTIRA</b>	<b>78</b>	<b>103</b>	<b>4</b>

Gainera, 26 fundaziotan parte hartzen dutela baieztatu dute 25 udalek eta udalaz gairdiko entitate batek.

Txosten honetan aurkeztu ditugun ondorioetarako, 2.108.443ko biztanleria hartu da aintzat, eskatutako informazioa igorri duten Euskal Autonomia Erkidegoko 238 udaletan 2018ko urtarrilaren 1ean zeuden biztanleak, alegia.

Txosten honetako ondorioak eskuratzeko finkatutako biztanleria mailak honako hauek dira:

GERUZA	UDAL KOP.	BIZT. KOP. 18/1/1
> 50.000.....	6	1.022.356
20.001 - 50.000.....	11	347.770
10.001 - 20.000.....	24	347.380
5.001 - 10.000.....	26	179.592
1.001 - 5.000.....	75	167.487
< 1.001.....	96	43.858
<b>EAE GUZTIRA</b>	<b>238</b>	<b>2.108.443</b>
ARABA.....	48	315.178
BIZKAIA.....	106	1.077.773
GIPUZKOA.....	84	715.492

Udalaz gairdiko entitateetan zerbitzua ematen zaion biztanleria, zerbitzu motaren arabera, honakoa da kontuak prozesatu diren 57 entitateetan:



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

JARDUERA	ERAKUNDE KOPURUA	BIZTANLERIA ARTATUA
1. Ura eta saneamendua .....	12	1.886.851
2. Udal zerbitzuen kudeaketa .....	8	271.750
3. Hiri hondakin solidoak.....	8	1.482.396
4. Gizarte ongizatea.....	10	253.432
5. Arabako Kuadrillak.....	6	79.692
6. Sustapena eta irakaskuntza, euskara eta lanerako prestak. ....	6	303.786
7. Partzoneriak eta baso ustiapena .....	5	63.401
8. Suteak itzaltzea.....	1	25.396
9. Garraioak.....	1	751.381

Lana egiteko honako prozedura hauek erabili ditugu:

- 2018ko ekitaldiko kontu orokorren analisia. Azterlan hau oinarri izan da toki entitateek, informatzeko betebeharrari dagokionez, legedia zein neurritan betetzen duten zehazteko.
- Udal eta udalaz gaindiko entitate guztien kontu orokorren atal diren balantzeen, ekonomia-ondareko emaitzaren kontuen eta aurrekontuen likidazioen azterketa berariazkoa; ezargarria zaien arautegian eskatutako informazio osoa barne hartzen dutela eta agiri guztiak elkarren artean koherenteak direla egiaztatu da.
- Udal eta udalaz gaindiko erakunde guztien balantzeen, ekonomia-ondareko emaitzaren kontuen eta aurrekontuen likidazioen azterketa berariazkoa, ekonomia-finantza izaerako adierazleak eskuratzeko.

Udalek eta udalaz gaindiko entitateek igorritako agirien edukia aztertzean hiru akats mota bereizi ditugu:

- Aurrekontu, aurrekontuen likidazio eta kontu orokorra onesteko epeetan eragina dutenak.
- Kontu orokorra eragiten dutenak, bai eduki formalari dagokionez, bai informazioaren eduki kualitatiboari dagokionez ere.
- Aurreko ekitaldietako Gastu orokorretarako diruzaintzako geldikin negatiboen finantzaketa moldeari erreferentzia egiten dietenak.

Txostenaren datu ekonomikoak milako eurotan daude emanak eta dezimalik ez erakusteko biribildu dira; datuek beti balio zehatz bakoitzaren biribiltzea erakusten dute eta ez biribildutako datuen batuketara.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## II. ONDORIOAK

### II.1 UDALEN KONTUAK

Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako Toki Entitateen Aurrekontuko Foru Arauek agintzen dute Toki Entitateek HKEEri Kontu Orokorra aurkeztuko diotela, beren berariazko arautegiak agintzen duen terminoetan behar bezala onetsia; berebat, HKEEren sortze legearen 9.5 artikulua agintzen du nahitaezkoa dela Epaitegi honi Toki Entitateen Aurrekontuen likidazioari dagokion dokumentazioa igortzea, egin edo onesten denetik aurrera hilabeteko epean. Dulantzi, Amezketa, Amurrio, Arakaldo, Artea, Asteasu, Durango, Gaintza, Galdakao, Idiazabal, Iruraiz-Gauna, Iurreta, Leintz-Gatzaga eta Ondarroako udalek urratu egin dute obligazio hau (ikus A.3.1).

Ondotik azalduko ditugun ondorioak EAEren 238 udalek igorritako datuetatik eskuratu dira. Datu horien arabera, EAEko Udalen % 94,44k aitortzen dizkio kontuak Epaitegi honi.

A.3.1 eranskinean banaka zehazten dira aztertutako 238 udaletan aurkitutako akatsak. Azpimarratu behar dugu udalerrien % 18,49 egiten duten 44 udaletan ez dela arestian aipatutako eranskinetan zehaztutako hutsetatik batere azaleratu; horietatik 7, Arabako Lurralde Historikoan daude; 19, Bizkaiko Lurralde Historikoan eta 18, Gipuzkoako Lurralde Historikoan.

#### Onespen epeak

- Aurrekontua dagokion ekitaldia hasi aurretik onetsi behar da, Lurralde Historiko bakoitzaren Aurrekontuko Foru Arauen 15.2 artikulua agintzen duenaren arabera. 115 udalek aurrekontuak 2018ko lehenengo seihilekoan onetsi zituzten eta 7k, berriz, ekitaldiaren bigarren seihilekoan. 238 udaletatik 110ek soilik -% 46,23- onartu dituzte ekitaldia hasi aurretik.

Hona hemen aurrekontuen onespen aldien arabera sailkatutako udal kopurua:

AURREKONTUEN ONESPENA	UDAL KOPURUA	%
2018/01/01 baino lehenago.....	110	% 46,23
2018ko 1. hiruhilekoa.....	88	% 36,97
2018ko 2. hiruhilekoa.....	27	% 11,34
2018ko 2. seihilekoa.....	7	% 2,94
Aurrekontu luzatua.....	6	% 2,52

- Lurralde historiko bakoitzaren Aurrekontuko Foru Arauen 49. artikulua hurrengo ekitaldiko martxoaren 31n jartzen du Erakundearen lehendakariak aurrekontuak onesteko epemuga. 28 udaletan -% 11,76- aurrekontuaren likidazioak indarreko arautegiak agindutako data baino beranduago onetsi dira. 238 udalek, % 88,24, 2019ko apirilaren 1a baino lehenago onartu dute.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Hona hemen aurrekontuen likidazioaren onespenezko aldien arabera sailkatutako udal kopurua:

LIKIDAZIOAREN ONESPENA	UDAL KOPURUA	%
2018/04/1 baino lehenago.....	210	% 88,24
2019/04/01 eta 2019/07/31 bitartean .....	27	% 11,34
2019/08/01 eta 2019/12/31 bitartean .....	1	% 0,42

- Lurralde historiko bakoitzaren Aurrekontuko Foru Arauen 63.4 artikulua hurrengo ekitaldiko uztailaren 31n jartzen du Entitatearen Osoko Bilkurak aurrekontua onesteko epemuga. 75 udalek arautegiak agindutako data baino beranduago onetsi dute eta 7 udaletan ez dago jasota onetsi denik ere. 238 udaletatik 156k -% 65,55- ezarritako epean onartu dute.

Hona hemen Kontu Orokorra onesteko aldien arabera sailkatutako udal kopurua:

KONTU OROKORRAREN ONESPENA	UDAL KOPURUA	%
2019/08/01 baino lehenago.....	156	% 65,55
2019/08/01 eta 2019/12/31 bitartean.....	72	% 30,25
2010/01/01 baino beranduago .....	3	% 1,26
Ez dago jasoa onartu denik.....	7	% 2,94

### Kontu Orokorraren eta likidazioaren eduki formala

Kontu Orokorra osatzen dute: balantzeak, ekonomia eta ondarearen emaitzaren kontuak, ondare garbian aldaketan egoerak, eskudiruzko fluxuen egoerak, aurrekontuaren likidazio egoerak eta memoriak; eta Udalak ekonomia, finantza, ondare eta aurrekontuko gaietan gauzatu duen kudeaketa erakusten du. Kontu Orokorra mamitu eta onartzeko obligazioa hiru lurralde historikoen foru arauetan dago xedatua eta hala ez egiteak erakunde hauen kudeaketan buru egin behar duen gardentasuna eragiten du.

Hona hemen kontuen edukian beste zenbait akats:



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

	UDAL KOPURUA
AKATSAK	2018
Ez dute barne hartu:	
Balantzea.....	2
Ekonomia-ondarearen emaitzaren kontua.....	2
Ondare garbiko aldaketan egoera.....	22
Eskudiruzko fluxuen egoera.....	14
Aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria.....	1
Oroitidazkia.....	13
Diru-kontaketa aktak.....	6
Banku-ohar edo ziurtagiririk eta kontziliazioak.....	38
Aurrekontu eta kontularitzako emaitzen kontziliazioaren egoera-orria.....	20
Diruzaintza-kontua.....	25
Udal zorrari buruzko informazioa.....	6

### Kontu Orokorraren eduki kualitatiboa

- Udaletan gauzatzen den ondare-kontabilitateak, kasu ugaritan, oraindik ez du eduki zuzena. Honela, bada, 58 udalek ez dituzte balantzean edo ekonomia eta ondarearen emaitzen kontuan ibilgetuaren amortizazioak txertatzen eta horietatik 54, 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriei dagozkie.
- Gainera, badira 5 udal, 24 hilabetetik gorako antzintasuneko kobratzeko zorrak izanik, kobragarritasun azterketarik egin ez dutenak eta diruzaintza geldikinetik inongo kopururik deduzitu ez dutenak.
- Hona hemen kontuen edukian beste zenbait akats:

	UDAL KOPURUA
	2018
<b>AURREKONTUKO AKATSAK:</b>	
Oker kalkulaturako aurrekontu emaitza.....	2
Ez dira kalkulatu ekitaldiko aurrekontuaren emaitzen zuzenketak.....	1
Ez da kalkulatu Geldikina atxikitako finantzaketa duten gastuetarako.....	2
<b>ONDAREKO AKATSAK:</b>	
Zorraren eranskina ez dator bat balantzearekin.....	5
Zalantzako kobragarritasuneko zuzkidura, balantzean jaso gabea.....	5
Balantzean kaudimen-gabeziarako zuzk. diruz. geldikinarena baino txikiagoa.....	7

### Gastu orokor negatiboetarako Diruzaintza Geldikinaren finantzaketa

16/12/31n Gipuzkoako Lurralde Historikoan Gastu orokorretarako geldikin negatiboa zuten bi entitate zeuden, 18/12/31n finantzatu gabe dutenak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuko Foru Arauaren 49.4 artikulua urratuz.



## II.2 UDALAZ GAINDIKO KONTUAK

Koartango Uren Partzuergoa, Iruña Okako Uren Partzuergoa, Lautada-Elgea Mendizerrako Ur Partzuergoa, Haranako Uren Partzuergoa, Tolosako Eskualdeko Hiltegiaren Mankomunitatea eta Sasieta Mankomunitatea entitateek ez dituzte 2018ko ekitaldiari dagozkion kontuak igorri eta Lurralde Historiko bakoitzaren Aurrekontuko Foru Arauen 63.5 artikulua urratu dute. Gainera, ezin izan da Ekialdeko Lautadako Uren Partzuergoaren kontua jasotzerik izan, jarduera abiarazi gabe duelako.

Hemen azalduko ditugun ondorioak EA Eren udalaz gaindiko 57 entitatek igorritako datuetatik eskuratu ditugu eta horrek esan nahi du EA Eko udalaz gaindiko entitateen % 90,48k aitortzen dizkiotela kontuak Epaitegi honi.

A.3.2 eranskinean zehazten dira udalaz gaindiko entitate bakoitzean aurkitutako akatsak. Azpimarratu behar dugu udalerrien % 19,30 egin duten 11 udalaz gaindiko entitatetan ez dela arestian aipatutako eranskinetan zehaztutako hutsetatik batere azaleratu; horietatik 4 Arabako Lurralde Historikoan daude, 4 Bizkaiko Lurralde Historikoan eta 3 Gipuzkoako Lurralde Historikoan.

### Onespen epeak

- Aurrekontua dagokion ekitaldia hasi aurretik onetsi behar da, Lurralde Historiko bakoitzaren Aurrekontuko Foru Arauen 15.2 artikulua agintzen duenaren arabera. 22 entitatek aurrekontuak 2018ko lehenengo seihilekoan onetsi zituzten eta 3k, berriz, ekitaldiaren bigarren seihilekoan. 57 udaletatik 29k soilik -% 50,88- onartu dituzte ekitaldia hasi aurretik.

Hona hemen aurrekontuen onespen aldien arabera sailkatutako entitate kopurua:

AURREKONTUEN ONESPENA	ENTITATE KOPURUA	%
2018/01/01 baino lehenago.....	29	% 50,88
2018ko 1. hiruhilekoa.....	14	% 24,56
2018ko 2. hiruhilekoa.....	8	% 14,04
2018ko 2. seihilekoa.....	3	% 5,26
Aurrekontu luzatua.....	2	% 3,51
Ez dago jaso onartu denik.....	1	% 1,75

- Lurralde historiko bakoitzaren Aurrekontuko Foru Arauen 49.1 artikulua hurrengo ekitaldiko martxoaren 31n jartzen du Erakundearen lehendakariak aurrekontuak onesteko epemuga. 10 entitatetan, % 17,54, likidazioak aurrekontu-araudiak agintzen duen data ondoren onartu dira.

45 entitatek, % 78,95, 2019ko apirilaren 1a baino lehenago onartu dute.

Hona hemen, udalaz gaindiko entitateek aurrekontuaren likidazioa zein alditan onetsi duten erakutsiko digun taula:



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

LIKIDAZIOAREN ONESPENA	ENTITATE KOPURUA	%
2019/04/1 baino lehenago.....	45	% 78,95
2019/04/01 eta 2019/07/31 bitartean.....	7	% 12,28
2019/08/01 eta 2019/12/31 bitartean.....	3	% 5,26
Ez dago jasoa onartu denik.....	2	% 3,51

- Lurralde historiko bakoitzaren Aurrekontuko Foru Arauen 63.4 artikulua hurrengo ekitaldiko uztailearen 31n jartzen du Entitatearen Osoko Bilkurak aurrekontua onesteko epemuga. 13 entitatek arautegiak agindutako data baino beranduago onetsi dute eta 13 entitatetan ez dago jasota onetsi denik ere.

Onespen aldien arabera sailkatutako erakunde kopurua honakoa da:

KONTU OROKORRAREN ONESPENA	ENTITATE KOPURUA	%
2019/08/01 baino lehenago.....	31	% 54,39
2019/08/01 eta 2019/12/31 bitartean.....	11	% 19,30
2020/01/1 baino beranduago.....	2	% 3,51
Ez dago jasoa onartu denik.....	13	% 22,80

## Kontu Orokorraren eta likidazioaren eduki formala

Hona hemen kontuen edukian beste zenbait akats:

AKATSAK	ENTITATE KOPURUA 2018
Ez dute barne hartu:	
Balantzea.....	8
Ekonomia-ondarearen emaitzaren kontua.....	8
Ondare garbiko aldaketen egoera.....	10
Eskudiruzko fluxuen egoera.....	9
Aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria.....	6
Oroitidazkia.....	10
Diru-kontaketa aktak.....	8
Banku-ohar edo ziurtagiririk eta kontziliazioak.....	13
Aurrekontu eta kontularitzako emaitzen kontziliazioaren egoera-orria.....	11
Diruzaintza-kontua.....	10
Udal zorrari buruzko informazioa.....	5





Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## Kontu Orokorraren eduki kualitatiboa

- 14 entitatek ez dituzte balantzean edo emaitzen kontuan ibilgetuko amortizazioak jaso; akats hori zuzendu egin behar da finantza egoerek ondare egoera zuzen isla dezaten.
- Udalaz gaindiko entitate batek, 24 hilabetetik gorako antzintasuneko zorrak dituenak, ez du kobragarritasunaren azterlanik.
- Hona hemen kontuen edukian beste zenbait akats:

ENTITATE KOPURUA	
2018	
<b>AURREKONTUKO AKATSAK</b>	
Ez dira kalkulatzeko ekitaldiko aurrekontuaren emaitzen zuzenketak .....	4
Ez da kalkulatzeko Geldikina atxikitako finantzaketa duten gastuetarako .....	4
<b>ONDAREKO AKATSAK:</b>	
Zorraren eranskina ez dator bat balantzearekin .....	1



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

### III. RATIOAK ETA ADIERAZLEAK 2018/12/31N

Txosten honetan islatzen diren adierazleak kalkulatzeko Toki Korporazioen Kontu Orokorreko adierazleak baliatu dira, Kontuen Epaitegiko tokiko esparrua Koordinatzeko Batzordeak eta autonomia erkidegoetako Kanpo Kontrolerako Organoek erabaki bidez 2013ko maiatzaren 7an hartu zituztenak, zeinak gerora, toki administraziorako kontabilitateko jarraibide berrietara egokitu baitira, eta 2018ko ekitaldiko urteko kontuei ezargarriak baitzaizkie.

#### III.1 UDAL ADIERAZLEAK

Udal adierazleak kalkulatzeko aztergai izan ditugun 238 udalen aurrekontu-likidazioei dagozkien datuak erabili dira. Adierazleak eta eskuratutako likidazioen laburpenak, banaka jaso ditugu ondoko lotunean:

- <http://www.tvcp.eu/informes.asp>



### III.1.1 FINANTZA ADIERAZLEAK

#### Berehalako likidezia, epe laburreko likidezia eta likidezia orokorra

Ratio hauek erakusten dute udalek zorrean dituzten ordainketei aurre egiteko duten gaitasuna. Biztanleria geruzaren arabera batez besteko baloreak honako hauek dira:

GERUZA	UDAL KOP.	BEREHALAKO LIKIDEZIA	LIKIDEZIA EPE MOTZ.	LIKIDEZIA OROKORRA
<b>ARABA</b>				
>50.000 .....	1	% 61,66	% 110,89	% 110,89
20.001-50.000 .....	-	-	-	-
10.001-20.000 .....	1	% 426,43	% 580,30	% 580,30
5.001-10.000 .....	1	% 38,19	% 107,28	% 107,28
1.001-5.000 .....	16	% 330,80	% 467,33	% 467,33
<1.001 .....	29	% 436,46	% 514,88	% 514,88
<b>ARABA BATEZ BESTE</b>	<b>48</b>	<b>% 95,00</b>	<b>% 152,57</b>	<b>% 152,57</b>
<b>BIZKAIA</b>				
>50.000 .....	3	% 61,66	% 236,96	% 236,96
20.001-50.000 .....	6	% 202,12	% 244,58	% 244,58
10.001-20.000 .....	9	% 166,91	% 246,46	% 246,63
5.001-10.000 .....	12	% 349,68	% 424,71	% 424,71
1.001-5.000 .....	39	% 401,44	% 459,24	% 471,24
<1.001 .....	37	% 309,25	% 352,97	% 394,65
<b>BIZKAIA BATEZ BESTE</b>	<b>106</b>	<b>% 205,61</b>	<b>% 272,52</b>	<b>% 274,63</b>
<b>GIPUZKOA</b>				
>50.000 .....	2	% 136,05	% 376,28	% 376,28
20.001-50.000 .....	5	% 173,55	% 335,70	% 336,81
10.001-20.000 .....	14	% 281,92	% 443,40	% 445,43
5.001-10.000 .....	13	% 275,23	% 408,77	% 408,90
1.001-5.000 .....	20	% 228,92	% 346,66	% 346,82
<1.001 .....	30	% 320,68	% 515,40	% 515,86
<b>GIPUZKOA BATEZ BESTE</b>	<b>84</b>	<b>% 211,85</b>	<b>% 393,98</b>	<b>% 394,80</b>
<b>EAE</b>				
>50.000 .....	6	% 117,19	% 209,59	% 209,59
20.001-50.000 .....	11	% 192,19	% 276,26	% 276,64
10.001-20.000 .....	24	% 239,33	% 365,72	% 366,87
5.001-10.000 .....	26	% 294,56	% 401,21	% 401,28
1.001-5.000 .....	75	% 350,22	% 436,12	% 443,24
<1.001 .....	96	% 346,41	% 434,76	% 455,53
<b>EAE BATEZ BESTE</b>	<b>238</b>	<b>% 179,84</b>	<b>% 276,63</b>	<b>% 277,86</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## Zorpetzea

Zorpetze-mailen baloraziorako biztanle-geruzaren arabera kalkulatu dira biztanleko zorpetze-adierazleak, finantza zorraren maila sarrera arruntei dagokienez eta 2018/12/31ko finantza zorra amortizatzeneko balioetsitako aldia.

GERUZA	UDAL KOP.	BIZTANLEKO ZORPETZEA (*)	FINANTZ. ZORRA SARR.ARR.GAIN.	FINANTZ. ZORRA AMORT. BALIOTS. EPEA (**)
<b>ARABA</b>				
>50.000 .....	1	753	% 21,01	2
20.001-50.000 .....	-	-	-	-
10.001-20.000 .....	1	201	% 0,81	-
5.001-10.000 .....	1	1.250	% 74,94	3
1.001-5.000 .....	16	340	% 3,33	-
<1.001 .....	29	401	% 11,67	1
<b>ARABA BATEZ BESTE</b>	<b>48</b>	<b>676</b>	<b>% 18,91</b>	<b>2</b>
<b>BIZKAIA</b>				
>50.000 .....	3	567	% 2,65	-
20.001-50.000 .....	6	375	% 17,49	2
10.001-20.000 .....	9	358	% 8,93	1
5.001-10.000 .....	12	265	% 7,72	-
1.001-5.000 .....	39	339	% 8,62	-
<1.001 .....	37	394	% 3,80	-
<b>BIZKAIA BATEZ BESTE</b>	<b>106</b>	<b>454</b>	<b>% 6,96</b>	<b>-</b>
<b>GIPUZKOA</b>				
>50.000 .....	2	708	% 33,78	2
20.001-50.000 .....	5	466	% 15,42	1
10.001-20.000 .....	14	448	% 13,06	1
5.001-10.000 .....	13	367	% 9,97	-
1.001-5.000 .....	20	415	% 180,28	8
<1.001 .....	30	464	% 11,45	-
<b>GIPUZKOA BATEZ BESTE</b>	<b>84</b>	<b>530</b>	<b>% 30,17</b>	<b>2</b>
<b>EAE</b>				
>50.000 .....	6	647	% 14,93	1
20.001-50.000 .....	11	410	% 16,64	1
10.001-20.000 .....	24	400	% 10,99	1
5.001-10.000 .....	26	341	% 10,80	1
1.001-5.000 .....	75	360	% 51,94	2
<1.001 .....	96	414	% 8,07	-
<b>EAE BATEZ BESTE</b>	<b>238</b>	<b>513</b>	<b>% 16,94</b>	<b>1</b>

(\*) Biztanleko eurotan.

(\*\*) Ekitaldi kopurua.

EAEren batez besteko zorra biztanleko 513 euro da. 2 udalek 2018/12/31n biztanleko zorra batez bestekoa baino nabarmen handiagoa dute (1.790 eta 2.205 euro bitartean biztanleko).



Finantza zorra amortizatzeko balioetsitako epeak adierazten du finantza zorra zenbat ekitalditan amortizatu daitekeen, egungo sarrera eta gastu arrunten mailarekin. 2018ko ekitaldian toki entitateen multzoaren sarrera arrunt guztien gaineko finantza zorraren proportzioa % 16,94koa da; gastu arruntak deduzituz gero, ekitaldi bateko batez besteko epea beharko litzateke finantza zorra osotasunean kitatzeko sarrera arrunten soberakinaren bidez. Ratio honen banako azterketan, 7 udaletan finantza zorra amortizatzeko balioetsitako epea 3 urtetik gorakoa da (batez bestekoa baino % 150 epe handiagoa) eta horietatik 2tan epea 5 urtetik gorakoa da.

Honako taula honetan zorpetzearen adierazlea kalkulatu da; adierazle honek neurtzen du zein lotura dagoen erakundeak hirugarrenen aurrean bere gain hartzen duen pasiboaren eta erakundearen finantzaketa-iturri guztien (baliabide propioak eta besteenak) artean. Zorpetze-erlazioa zutabeak neurtzen du pasibo arrunt eta ez arruntaren arteko zatidura.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

GERUZA	UDAL KOP	ZORPETZEA	ZORPETZE ERLAZIOA
<b>ARABA</b>			
>50.000.....	1	% 16,12	% 162,94
20.001-50.000.....	-	-	-
10.001-20.000.....	1	% 3,44	% 1931,67
5.001-10.000.....	1	% 15,46	% 35,24
1.001-5.000.....	16	% 4,69	% 220,30
<1.001.....	29	% 4,79	% 188,94
<b>ARABA BATEZ BESTE</b>	<b>48</b>	<b>% 13,02</b>	<b>% 162,37</b>
<b>BIZKAIA</b>			
>50.000.....	3	% 10,14	% 71,40
20.001-50.000.....	6	% 9,13	% 158,74
10.001-20.000.....	9	% 6,28	% 242,70
5.001-10.000.....	12	% 3,36	% 150,84
1.001-5.000.....	39	% 2,76	% 208,05
<1.001.....	37	% 2,34	% 525,87
<b>BIZKAIA BATEZ BESTE</b>	<b>106</b>	<b>% 7,23</b>	<b>% 104,18</b>
<b>GIPUZKOA</b>			
>50.000.....	2	% 18,80	% 38,01
20.001-50.000.....	5	% 11,36	% 75,24
10.001-20.000.....	14	% 7,59	% 98,40
5.001-10.000.....	13	% 6,11	% 158,51
1.001-5.000.....	20	% 9,28	% 74,59
<1.001.....	30	% 2,95	% 135,59
<b>GIPUZKOA BATEZ BESTE</b>	<b>84</b>	<b>% 10,81</b>	<b>% 63,97</b>
<b>EAE</b>			
>50.000.....	6	% 13,14	% 77,50
20.001-50.000.....	11	% 9,98	% 114,55
10.001-20.000.....	24	% 6,87	% 139,20
5.001-10.000.....	26	% 4,87	% 133,88
1.001-5.000.....	75	% 3,86	% 150,61
<1.001.....	96	% 2,96	% 244,02
<b>EAE BATEZ BESTE</b>	<b>238</b>	<b>% 9,08</b>	<b>% 95,88</b>

Toki entitateen multzoari dagokionez, zorpetzeak pasibo guztiaren gainean % 9,08 egiten du, nahiz tamaina handiagoko udaletan proportzioa % 13,14ra igo zen; horren ondorioz, tamaina txikiagoa duten udalen aldean kanpoko finantzaketarekiko mendekotasun handiagoa daukate; bada, 1.000 biztanletik beherako udaletan ehunekoa % 2,96koa da.

EAEko udalek foru aldundiei itunpeko zergetan udal partaidetzagatiko likidazio negatiboen kontzeptuan guztira 14 milioi euro dituzte itzultzeko; guztiak ere Arabako udalerriei dagozkie.



## Cash-Flow

Honako taula honetan erakusten da kudeaketa jarduerengatiko eskudiruzko fluxu garbiek zein neurritan estaltzen duten erakundearen pasiboa, biztanleria geruzaren arabera berezia.

GERUZA	UDAL KOP.	CASH -FLOW
<b>ARABA</b>		
>50.000 .....	1	% 403,70
20.001-50.000 .....	-	-
10.001-20.000 .....	1	% 91,36
5.001-10.000 .....	1	% 297,63
1.001-5.000 .....	16	% 77,30
<1.001 .....	29	% 60,29
<b>ARABA BATEZ BESTE</b>	<b>48</b>	<b>% 286,17</b>
<b>BIZKAIA</b>		
>50.000 .....	3	% 368,49
20.001-50.000 .....	6	% 289,26
10.001-20.000 .....	9	% 195,35
5.001-10.000 .....	12	% 117,06
1.001-5.000 .....	39	% 108,74
<1.001 .....	37	% 86,95
<b>BIZKAIA BATEZ BESTE</b>	<b>106</b>	<b>% 255,55</b>
<b>GIPUZKOA</b>		
>50.000 .....	2	% 326,40
20.001-50.000 .....	5	% 224,24
10.001-20.000 .....	14	% 206,93
5.001-10.000 .....	13	% 123,86
1.001-5.000 .....	20	% 161,36
<1.001 .....	30	% 72,30
<b>GIPUZKOA BATEZ BESTE</b>	<b>84</b>	<b>% 226,89</b>
<b>EAE</b>		
>50.000 .....	6	% 364,98
20.001-50.000 .....	11	% 257,05
10.001-20.000 .....	24	% 196,33
5.001-10.000 .....	26	% 128,66
1.001-5.000 .....	75	% 112,44
<1.001 .....	96	% 73,17
<b>EAE BATEZ BESTE</b>	<b>238</b>	<b>% 249,74</b>



## Ekonomia-ondarearen emaitzaren kontuaren ratioak

### Sarreraren egitura:

Ondoko ratio hauek erakusten dute ondarearen emaitza ekonomikoko kontuaren sarrera bakoitzak erakundearen kudeaketa arrunteko sarrera guztien aldean zenbateko garrantzia erlatiboa duen.

GERUZA	UDAL KOP.	ZERGA ETA HIRIGINT. SARRERAK	JASOT. DIRULAG. ETA TRANSF.	SALMEN. ETA ZERB. EMAKIDA	KUD. ARR. GAIN. SARR.
<b>ARABA</b>					
>50.000 .....	1	% 35,54	% 57,27	% 4,72	% 2,47
20.001-50.000 .....	-	-	-	-	-
10.001-20.000 .....	1	% 48,72	% 49,58	% 0,07	% 1,63
5.001-10.000 .....	1	% 43,57	% 54,28	% 0,56	% 1,59
1.001-5.000 .....	16	% 43,89	% 51,50	% 1,21	% 3,40
<1.001 .....	29	% 42,70	% 50,79	% 1,65	% 4,86
<b>ARABA BATEZ BESTE</b>	<b>48</b>	<b>% 37,42</b>	<b>% 56,02</b>	<b>% 3,96</b>	<b>% 2,60</b>
<b>BIZKAIA</b>					
>50.000 .....	3	% 32,67	% 61,67	% 0,31	% 5,35
20.001-50.000 .....	6	% 35,57	% 61,09	% 1,27	% 2,07
10.001-20.000 .....	9	% 36,21	% 61,11	% 0,85	% 1,83
5.001-10.000 .....	12	% 38,65	% 56,74	% 1,30	% 3,31
1.001-5.000 .....	39	% 41,69	% 54,73	% 0,35	% 3,23
<1.001 .....	37	% 24,61	% 69,03	% 0,71	% 5,65
<b>BIZKAIA BATEZ BESTE</b>	<b>106</b>	<b>% 34,67</b>	<b>% 60,65</b>	<b>% 0,63</b>	<b>% 4,05</b>
<b>GIPUZKOA</b>					
>50.000 .....	2	% 47,18	% 49,51	% 0,30	% 3,01
20.001-50.000 .....	5	% 40,01	% 57,04	% 0,59	% 2,36
10.001-20.000 .....	14	% 40,90	% 56,56	% 0,23	% 2,31
5.001-10.000 .....	13	% 42,77	% 53,30	% 1,83	% 2,10
1.001-5.000 .....	20	% 35,04	% 63,10	% 0,12	% 1,74
<1.001 .....	30	% 32,34	% 63,52	-	% 4,14
<b>GIPUZKOA BATEZ BESTE</b>	<b>84</b>	<b>% 38,78</b>	<b>% 57,74</b>	<b>% 0,30</b>	<b>% 3,18</b>
<b>EAE</b>					
>50.000 .....	6	% 37,11	% 57,48	% 1,34	% 4,07
20.001-50.000 .....	11	% 37,38	% 59,43	% 0,99	% 2,20
10.001-20.000 .....	24	% 39,67	% 57,78	% 0,44	% 2,11
5.001-10.000 .....	26	% 40,85	% 54,95	% 1,54	% 2,66
1.001-5.000 .....	75	% 40,37	% 56,32	% 0,43	% 2,88
<1.001 .....	96	% 32,30	% 63,40	% 0,08	% 4,22
<b>EAE BATEZ BESTE</b>	<b>238</b>	<b>% 36,94</b>	<b>% 58,71</b>	<b>% 0,89</b>	<b>% 3,46</b>





Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

### Gastuen egitura:

Ondoko ratio hauek erakusten dute ondarearen emaitza ekonomikoko kontuaren sarrera bakoitzak erakundearen kudeaketa arrunteko gastu guztien aldean zenbateko garrantzia erlatiboa duen.

GERUZA	UDAL KOP.	LANGILERIA GASTUAK	EMAND. DIRULAG. ETA TRANSF.	HORNID.	GAINER. GTU. ARRUNTAK
<b>ARABA</b>					
>50.000 .....	1	% 44,27	% 12,47	-	% 43,26
20.001-50.000 .....	-	-	-	-	-
10.001-20.000 .....	1	% 41,45	% 8,62	-	% 49,93
5.001-10.000 .....	1	% 24,02	% 6,08	-	% 69,90
1.001-5.000 .....	16	% 24,57	% 13,01	-	% 62,42
<1.001 .....	29	% 23,44	% 15,44	-	% 61,12
<b>ARABA BATEZ BESTE</b>	<b>48</b>	<b>% 41,12</b>	<b>% 12,36</b>	<b>-</b>	<b>% 46,52</b>
<b>BIZKAIA</b>					
>50.000 .....	3	% 29,04	% 27,09	% 5,21	% 38,66
20.001-50.000 .....	6	% 36,82	% 14,68	% 5,33	% 43,17
10.001-20.000 .....	9	% 35,42	% 18,05	% 1,65	% 44,88
5.001-10.000 .....	12	% 30,69	% 14,54	% 5,80	% 48,97
1.001-5.000 .....	39	% 28,37	% 15,34	-	% 56,29
<1.001 .....	37	% 37,22	% 13,92	-	% 48,86
<b>BIZKAIA BATEZ BESTE</b>	<b>106</b>	<b>% 31,35</b>	<b>% 21,69</b>	<b>% 4,37</b>	<b>% 42,60</b>
<b>GIPUZKOA</b>					
>50.000 .....	2	% 29,60	% 30,90	-	% 39,50
20.001-50.000 .....	5	% 36,41	% 16,61	% 0,02	% 46,96
10.001-20.000 .....	14	% 32,30	% 18,19	-	% 49,51
5.001-10.000 .....	13	% 29,79	% 15,58	% 0,02	% 54,61
1.001-5.000 .....	20	% 33,38	% 15,24	-	% 51,38
<1.001 .....	30	% 23,55	% 13,00	-	% 63,45
<b>GIPUZKOA BATEZ BESTE</b>	<b>84</b>	<b>% 28,09</b>	<b>% 18,11</b>	<b>-</b>	<b>% 53,80</b>
<b>EAE</b>					
>50.000 .....	6	% 32,78	% 24,59	% 2,67	% 39,96
20.001-50.000 .....	11	% 36,66	% 15,47	% 3,17	% 44,70
10.001-20.000 .....	24	% 33,89	% 17,62	% 0,58	% 47,91
5.001-10.000 .....	26	% 30,07	% 14,82	% 2,81	% 52,30
1.001-5.000 .....	75	% 28,97	% 14,89	-	% 56,14
<1.001 .....	96	% 23,96	% 13,09	-	% 62,95
<b>EAE BATEZ BESTE</b>	<b>238</b>	<b>% 30,94</b>	<b>% 18,82</b>	<b>% 1,71</b>	<b>% 48,53</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

### Gastu arrunten estaldura:

Adierazle honek kudeaketa arrunteko gastuen estaldura maila erakusten du kudeaketa arrunteko sarrerei dagokienez.

GERUZA	UDAL KOP.	GTU. ARRUNTEN ESTALDURA
<b>ARABA</b>		
>50.000 .....	1	% 91,06
20.001-50.000 .....	-	-
10.001-20.000 .....	1	% 90,03
5.001-10.000 .....	1	% 85,37
1.001-5.000 .....	16	% 94,99
<1.001 .....	29	% 96,57
<b>ARABA BATEZ BESTE</b>	<b>48</b>	<b>% 91,49</b>
<b>BIZKAIA</b>		
>50.000 .....	3	% 91,74
20.001-50.000 .....	6	% 93,07
10.001-20.000 .....	9	% 90,44
5.001-10.000 .....	12	% 91,17
1.001-5.000 .....	39	% 83,92
<1.001 .....	37	% 77,51
<b>BIZKAIA BATEZ BESTE</b>	<b>106</b>	<b>% 90,79</b>
<b>GIPUZKOA</b>		
>50.000 .....	2	% 87,32
20.001-50.000 .....	5	% 92,35
10.001-20.000 .....	14	% 92,54
5.001-10.000 .....	13	% 86,68
1.001-5.000 .....	20	% 88,37
<1.001 .....	30	% 108,83
<b>GIPUZKOA BATEZ BESTE</b>	<b>84</b>	<b>% 97,27</b>
<b>EAE</b>		
>50.000 .....	6	% 90,43
20.001-50.000 .....	11	% 92,77
10.001-20.000 .....	24	% 91,66
5.001-10.000 .....	26	% 88,75
1.001-5.000 .....	75	% 86,89
<1.001 .....	96	% 107,18
<b>EAE BATEZ BESTE</b>	<b>238</b>	<b>% 93,92</b>



### III.1.2 AURREKONTUAREN ADIERAZLEAK

#### Sarrerren aurrekontuaren adierazleak

Atal honetan erakusten da toki entitateek 2018ko sarrerren aurrekontuan izan duten egikaritza, honako hauek bereiziaz: behin betiko aurreikuspenen egikaritzako adierazleak; eskubide aitortuen kobrantzetan egikaritza-maila, eta 1etik 3rako kapituluaren kobrantza osoaren batez besteko aldia, biztanleria-geruzaren arabera sailkatuak:

GERUZA	UDAL KOP.	SARREREN AURREKONT. EGIKARITZA	KOBRANTZEN EGIKARITZA	1ETIK 3RAKO KAPITULUEN KOBRANTZA OSOAREN BATEZ B. ALDIA (*)
<b>ARABA</b>				
>50.000 .....	1	% 89,34	% 88,31	65
20.001-50.000 .....	-	-	-	-
10.001-20.000 .....	1	% 83,14	% 84,18	42
5.001-10.000 .....	1	% 90,86	% 85,79	42
1.001-5.000 .....	16	% 74,73	% 78,89	40
<1.001 .....	29	% 70,62	% 87,33	25
<b>ARABA BATEZ BESTE</b>	<b>48</b>	<b>% 86,43</b>	<b>% 87,13</b>	<b>59</b>
<b>BIZKAIA</b>				
>50.000 .....	3	% 95,07	% 91,30	60
20.001-50.000 .....	6	% 93,43	% 93,56	32
10.001-20.000 .....	9	% 85,86	% 92,76	31
5.001-10.000 .....	12	% 80,71	% 92,52	27
1.001-5.000 .....	39	% 79,36	% 93,79	22
<1.001 .....	37	% 87,99	% 94,32	12
<b>BIZKAIA BATEZ BESTE</b>	<b>106</b>	<b>% 90,59</b>	<b>% 92,28</b>	<b>44</b>
<b>GIPUZKOA</b>				
>50.000 .....	2	% 81,68	% 79,13	47
20.001-50.000 .....	5	% 77,45	% 91,03	36
10.001-20.000 .....	14	% 84,39	% 90,80	37
5.001-10.000 .....	13	% 84,45	% 89,25	36
1.001-5.000 .....	20	% 89,31	% 88,64	31
<1.001 .....	30	% 79,62	% 88,62	17
<b>GIPUZKOA BATEZ BESTE</b>	<b>84</b>	<b>% 82,27</b>	<b>% 85,88</b>	<b>40</b>
<b>EAE</b>				
>50.000 .....	6	% 89,58	% 87,17	58
20.001-50.000 .....	11	% 86,39	% 92,56	34
10.001-20.000 .....	24	% 84,83	% 91,14	35
5.001-10.000 .....	26	% 82,85	% 90,66	32
1.001-5.000 .....	75	% 80,75	% 89,80	28
<1.001 .....	96	% 80,11	% 90,75	19
<b>EAE BATEZ BESTE</b>	<b>238</b>	<b>% 86,77</b>	<b>% 89,17</b>	<b>45</b>

(\*) Egun kopurua

Toki-entitateen multzoarentzat behin betiko aurreikuspenen egikaritza maila % 86,77 izan zen eta eskubide aitortuen egikaritza maila, berriz, % 89,17.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Sarrerren egikaritzza maila handiena, % 89,58, 50.000 biztanletik gorarako udalei dagokie.

Zerga-sarrerak kobratzeko batez besteko aldia 45 egun izan zen.

### Sarrerren aurrekontuaren beste adierazle batzuk

Aurreko atalean jasotako adierazleez gain (egikaritzza maila eta kobrantzarako batez besteko aldia), jasotako dirulaguntzen autonomia eta mendekotasun-indizea erakusten duten adierazleak ere kalkulatu dira eta horrek helburudun xedea duten sarrerren ehunekoa erakusten du.

GERUZA	UDAL KOP.	AUTONOMIA	AUTONOMIA FISKALA	JASOTAKO DIRULAG.
				MENDEKOTASUN INDIZEA
<b>ARABA</b>				
>50.000 .....	1	% 88,13	% 34,18	% 9,01
20.001-50.000 .....	-	-	-	-
10.001-20.000 .....	1	% 96,02	% 38,36	% 3,98
5.001-10.000 .....	1	% 83,59	% 40,63	% 16,41
1.001-5.000 .....	16	% 70,84	% 38,54	% 26,93
<1.001 .....	29	% 70,32	% 39,88	% 29,68
<b>ARABA BATEZ BESTE</b>	<b>48</b>	<b>% 86,08</b>	<b>% 35,17</b>	<b>% 11,44</b>
<b>BIZKAIA</b>				
>50.000 .....	3	% 94,69	% 32,48	% 4,98
20.001-50.000 .....	6	% 89,79	% 32,54	% 8,39
10.001-20.000 .....	9	% 90,85	% 34,46	% 7,92
5.001-10.000 .....	12	% 91,15	% 35,17	% 6,95
1.001-5.000 .....	39	% 90,91	% 36,26	% 8,73
<1.001 .....	37	% 86,37	% 21,61	% 13,12
<b>BIZKAIA BATEZ BESTE</b>	<b>106</b>	<b>% 92,53</b>	<b>% 33,04</b>	<b>% 6,63</b>
<b>GIPUZKOA</b>				
>50.000 .....	2	% 91,03	% 35,12	% 5,74
20.001-50.000 .....	5	% 92,85	% 36,91	% 5,90
10.001-20.000 .....	14	% 92,06	% 38,02	% 7,26
5.001-10.000 .....	13	% 87,44	% 36,15	% 12,41
1.001-5.000 .....	20	% 79,65	% 32,00	% 17,36
<1.001 .....	30	% 79,48	% 29,13	% 20,52
<b>GIPUZKOA BATEZ BESTE</b>	<b>84</b>	<b>% 90,31</b>	<b>% 35,97</b>	<b>% 7,86</b>
<b>EAE</b>				
>50.000 .....	6	% 92,11	% 33,63	% 6,15
20.001-50.000 .....	11	% 91,00	% 34,27	% 7,41
10.001-20.000 .....	24	% 91,84	% 36,78	% 7,32
5.001-10.000 .....	26	% 89,04	% 35,82	% 10,01
1.001-5.000 .....	75	% 84,44	% 35,58	% 14,20
<1.001 .....	96	% 79,94	% 28,84	% 19,84
<b>EAE BATEZ BESTE</b>	<b>238</b>	<b>% 90,74</b>	<b>% 34,43</b>	<b>% 7,81</b>



Autonomia-ratioak erakusten du toki entitateek tokiko eskumenak bideratzeko autonomia osoz balia ditzaketen sarreren ehunekoa. 2018rako adierazle honen batez besteko emaitza % 90,74 izan zen.

Autonomia fiskalaren ratioak erakusten du izaera fiskaleko sarreren proportzioa entitatearen sarrera guztien gainean. Adierazle hau udalerraren gaitasun fiskalaren, ordenantzetan jasotako tarifen eta kudeaketaren eraginkortasunaren araberakoa da. 2018ko ekitaldian, batez bestekoa % 34,43 izan zen.

Azkenik, 2018an jasotako dirulaguntzen mendekotasun indizea % 7,81 izan zen toki entitateen multzorako.



## Gastuen aurrekontuaren adierazleak

Atal honetan erakusten da toki entitateek 2018ko sarreraren aurrekontuan izan duten egikaritza, honako hauek bereiziaz: behin betiko kredituen egikaritzako adierazleak; obligazio aitortuen egikaritza-maila; eta 2 eta 6 kapituluaren ordainketa osoaren batez besteko aldia, biztanleria-geruzaren arabera sailkatuak:

GERUZA	UDAL KOP.	GASTUEN AURREKONT. EGIKARITZA	ORDAINKETAK GAUZATZEA	ORDAINK. OSOAREN BATEZ BESTEKO EPEA 2. ETA 6. KAP. (*)
<b>ARABA</b>				
>50.000 .....	1	% 82,65	% 91,97	61
20.001-50.000 .....	-	-	-	-
10.001-20.000 .....	1	% 78,55	% 90,77	48
5.001-10.000 .....	1	% 91,92	% 88,38	59
1.001-5.000 .....	16	% 68,90	% 85,38	60
<1.001 .....	29	% 63,61	% 91,27	37
<b>ARABA BATEZ BESTE</b>	<b>48</b>	<b>% 80,06</b>	<b>% 91,20</b>	<b>59</b>
<b>BIZKAIA</b>				
>50.000 .....	3	% 89,97	% 88,85	79
20.001-50.000 .....	6	% 84,53	% 93,33	38
10.001-20.000 .....	9	% 79,89	% 91,91	44
5.001-10.000 .....	12	% 75,06	% 94,08	33
1.001-5.000 .....	39	% 73,34	% 91,13	46
<1.001 .....	37	% 80,89	% 89,05	63
<b>BIZKAIA BATEZ BESTE</b>	<b>106</b>	<b>% 84,52</b>	<b>% 90,63</b>	<b>59</b>
<b>GIPUZKOA</b>				
>50.000 .....	2	% 69,47	% 97,05	20
20.001-50.000 .....	5	% 77,40	% 91,86	53
10.001-20.000 .....	14	% 76,82	% 89,92	56
5.001-10.000 .....	13	% 71,58	% 91,17	51
1.001-5.000 .....	20	% 84,21	% 93,14	40
<1.001 .....	30	% 74,95	% 91,18	48
<b>GIPUZKOA BATEZ BESTE</b>	<b>84</b>	<b>% 73,70</b>	<b>% 93,31</b>	<b>42</b>
<b>EAE</b>				
>50.000 .....	6	% 81,91	% 91,74	61
20.001-50.000 .....	11	% 81,45	% 92,73	44
10.001-20.000 .....	24	% 77,98	% 90,68	51
5.001-10.000 .....	26	% 73,74	% 92,47	42
1.001-5.000 .....	75	% 74,98	% 90,63	47
<1.001 .....	96	% 73,72	% 90,29	51
<b>EAE BATEZ BESTE</b>	<b>238</b>	<b>% 79,70</b>	<b>% 91,67</b>	<b>53</b>

(\*) Egun kopurua.

Toki entitateen multzo osoari dagokionez, egikaritza epea % 79,70 izan zen eta obligazio aitortuen betetze-maila % 91,67; batez besteko ordaintzeko aldia, berriz, 53 egunekoa.



## Gastuen aurrekontuaren beste adierazle batzuk

Aurreko atalean jasotako adierazleez gain, alderdi jakin batzuen gaineko informazioa ematen duten beste ratio batzuk kalkulatu dira biztanle geruzaren arabera sailkatuak, egikaritutako gastuaren informazioa osatzen laguntzen dutenak; hona hemen:

GERUZA	Euroak/biztanleko					
	UDAL KOP.	BIZTANLEKO GASTUA	LANGILE GAST. INDIZEA	BIZTANLEKO INBERTS.	INBERTSIO AHALEGINA	EKITALD. FIN. ZAMA
<b>ARABA</b>						
>50.000 .....	1	1.395	% 41,72	73	% 5,23	% 5,28
20.001-50.000 .....	-	-	-	-	-	-
10.001-20.000 .....	1	1.248	% 40,93	179	% 14,36	% 0,34
5.001-10.000 .....	1	1.511	% 20,29	411	% 27,20	% 13,21
1.001-5.000 .....	16	1.374	% 24,18	328	% 23,88	% 1,60
<1.001 .....	29	1.414	% 25,54	381	% 26,91	% 2,76
<b>ARABA BATEZ BESTE</b>	<b>48</b>	<b>1.388</b>	<b>% 39,16</b>	<b>121</b>	<b>% 8,75</b>	<b>% 4,73</b>
<b>BIZKAIA</b>						
>50.000 .....	3	1.379	% 27,85	189	% 13,68	% 0,75
20.001-50.000 .....	6	1.183	% 34,33	110	% 9,32	% 1,93
10.001-20.000 .....	9	1.146	% 31,87	128	% 11,18	% 1,31
5.001-10.000 .....	12	1.249	% 28,04	180	% 14,38	% 1,88
1.001-5.000 .....	39	1.365	% 24,16	245	% 17,95	% 2,91
<1.001 .....	37	1.558	% 29,82	387	% 24,84	% 2,83
<b>BIZKAIA BATEZ BESTE</b>	<b>106</b>	<b>1.302</b>	<b>% 29,18</b>	<b>173</b>	<b>% 13,29</b>	<b>% 1,35</b>
<b>GIPUZKOA</b>						
>50.000 .....	2	1.527	% 27,70	212	% 13,86	% 4,88
20.001-50.000 .....	5	1.348	% 33,32	205	% 15,19	% 3,32
10.001-20.000 .....	14	1.319	% 29,64	213	% 16,15	% 2,61
5.001-10.000 .....	13	1.351	% 26,57	199	% 14,76	% 4,06
1.001-5.000 .....	20	1.310	% 29,25	277	% 21,17	% 3,49
<1.001 .....	30	1.828	% 29,72	635	% 34,77	% 2,30
<b>GIPUZKOA BATEZ BESTE</b>	<b>84</b>	<b>1.408</b>	<b>% 29,19</b>	<b>220</b>	<b>% 15,63</b>	<b>% 3,78</b>
<b>EAE</b>						
>50.000 .....	6	1.419	% 31,12	166	% 11,70	% 2,88
20.001-50.000 .....	11	1.246	% 33,91	146	% 11,73	% 2,50
10.001-20.000 .....	24	1.248	% 30,99	178	% 14,28	% 2,03
5.001-10.000 .....	26	1.304	% 27,08	195	% 14,98	% 3,30
1.001-5.000 .....	75	1.352	% 25,47	268	% 19,85	% 2,84
<1.001 .....	96	1.583	% 28,65	449	% 28,34	% 2,66
<b>EAE BATEZ BESTE</b>	<b>238</b>	<b>1.351</b>	<b>% 30,69</b>	<b>181</b>	<b>% 13,42</b>	<b>% 2,72</b>



Ekitaldiko finantza zama ratioak interesak ordaintzeko eta zorra amortizatzeko erabili behar den sarrera arrunten ehunekoa adierazten du. 2018ko ekitaldian, batez bestekoa % 2,72 izan zen.

Langile gastuen indizea adierazleak neurtzen du entitateko langile gastuek zein proportziotan xurgatzen dituzten eragiketa arruntetako eskubide aitortuak. 2018ko ekitaldirako, adierazle honen emaitza toki entitateen multzo osorako % 30,69 izan zen.

201ko ekitaldian udalen biztanleko gastua 1.351 euro izan zen eta horietatik inbertsioetarako batez beste biztanleko 181 euro eman ziren.





## Aurrekontu emaitzaren eta diruzaintza geldikinaren adierazleak

Aurrezki gordin ez finantzarioak erakusten du finantzazkoak ez diren gastu arruntei behin aurre egin ondoren erabilgarri geratzen den sarrera arrunten atala.

Aurrezki garbiak islatzen du finantza zamaren ordainketari aurre egin ondoren geratzen den aurrezki gordin ez finantzarioaren zatia. Berezko baliabideekin inbertsioak finantzatzeko udalak duen gaitasuna erakusten du.

GERUZA	UDAL KOP.	AURREZKI GORD.		Euroak/biztanleko	
		EZ FINANTZ. BIZTANLEKO	AURREZK GARB. BIZTANLEKO	DEFIZITA BIZTANLEKO	SUPERAB./ BIZTANLEKO
<b>ARABA</b>					
>50.000 .....	1	145		71	55
20.001-50.000 .....	-	-		-	-
10.001-20.000 .....	1	164		160	238
5.001-10.000 .....	1	465		282	(11)
1.001-5.000 .....	16	282		261	271
<1.001 .....	29	304		268	246
<b>ARABA BATEZ BESTE</b>	<b>48</b>	<b>171</b>		<b>106</b>	<b>93</b>
<b>BIZKAIA</b>					
>50.000 .....	3	233		222	103
20.001-50.000 .....	6	132		109	136
10.001-20.000 .....	9	176		161	164
5.001-10.000 .....	12	211		188	192
1.001-5.000 .....	39	283		244	223
<1.001 .....	37	390		347	248
<b>BIZKAIA BATEZ BESTE</b>	<b>106</b>	<b>211</b>		<b>193</b>	<b>137</b>
<b>GIPUZKOA</b>					
>50.000 .....	2	248		175	318
20.001-50.000 .....	5	246		201	205
10.001-20.000 .....	14	306		270	255
5.001-10.000 .....	13	301		244	343
1.001-5.000 .....	20	290		246	226
<1.001 .....	30	483		445	426
<b>GIPUZKOA BATEZ BESTE</b>	<b>84</b>	<b>276</b>		<b>222</b>	<b>279</b>
<b>EAE</b>					
>50.000 .....	6	215		174	144
20.001-50.000 .....	11	175		144	162
10.001-20.000 .....	24	248		221	218
5.001-10.000 .....	26	261		217	258
1.001-5.000 .....	75	285		247	232
<1.001 .....	96	388		348	293
<b>EAE BATEZ BESTE</b>	<b>238</b>	<b>227</b>		<b>190</b>	<b>179</b>

Aurrezki gordin ez finantzarioak kasu guztietan finantza zamaren pareko edo handiagoa izan behar du, izan ere, bestela udalak ezingo lioke zama honen ordainketari aurre egin eta



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

ez luke inbertsioetarako auto-finantzaketarik izango. Aztergai izan dugun aldian, ez dago udal bakar bat aurrezki gordin ez finantzario negatiboa duenik.

Aurrezki garbiak positiboa izan behar du, kapitalezko sarrerak ez daitezen gastu arruntak finantzatzeko erabil. 2 udalen finantza zamak aurrezki gordin ez finantzarioa gainditu du. Honek guztiak esan nahi du 2 udal daudela aurrezki garbi negatiboa erakusten dutenak. Aurrezki gordin ez finantzarioa negatiboa duten horietan edota finantza zama hau baino handiagoa denetan, zorpetzeko marjinarik batere ez dutela aintzat hartuta, 2 udal hauen autofinantzaketarako gaitasuna zero da.

Aitortutako eskubide garbiei dagokienez, batez besteko indizeak honako hauek dira:

GERUZA	UDAL KOP.	AURREZKI GORD. INDIZEA	AURREZKI GORDIN EZ-FINANT. INDIZEA
<b>ARABA</b>			
>50.000.....	1	% 10,16	% 10,39
20.001-50.000.....	-	-	-
10.001-20.000.....	1	% 13,02	% 13,36
